

## Leioan bizi bazara, leioa zabaldu euskarari!



### Zelan gura duzu egitea berba Leioak datozen bost urteetan?

Horixe jakin eta aztertu gura dugu, eta zeure iritzia jaso. Izango duzu zer esan, segurur!

### Zer eskatuko dizu?

Egun bitan ordu bi, hori baino ez.

### Zer egingo dugu?

Taldean aztertu, Leioan, datozen bost urteetan euskara erabili eta entzun dadin, zer egin daitekeen.

### Zer taldetan parte hartu?

- Familia, irakaskuntza, euskalduntzea eta formazioa
- Aisia, kirola, kurgintza eta merkataritza
- Gazteak

### Talde guztietakoak elkartuko gara:

- 1. batzarra: urriak 3
- 2. batzarra: urriak 17

**Ordua:** 19:00-21:00

**Lekua:** Mastitxu Udal Euskaltegia

**Parte hartu gura baduzu, izena eman:**

- Euskara Zerbitzua: 946072576 edo euskarateknikaria@leioa.net

<https://www.facebook.com/EuskaraZerbitzuaLeioakoUdala>



## 1. LAN-SAIOA

Data: 2012/10/03

Hasiera-ordua: 19:00

Bukaera-ordua: 21:00

Lekua: Leioako Mastitxu Udal Euskaltegia

## ETORRITAKOAK

### Parte-hartzaileen ezaugarriak:

17 lagun: 7 gizonezko eta 10 emakumezko

- ✘ 0-30 urte bitartean: 0 lagun
- ✘ 30-40 urte bitartean: 4 lagun
- ✘ 40-50 urte bitartean: 5 lagun
- ✘ 50-60 urte bitartean: 6 lagun
- ✘ 60 urtetik gora: 1

Asmoa herriko gazteekin 16-19 urte bitartekoekin, batez ere, lan-mahaia eratzea zen. Bide bitatik ahalegindu gara gazteengana heltzen: gazteengandik hur dauden eragileen bidez eta Gazteguneko arduradunaren bidez. Ez dugu emaitzarik lortu.

Proiektuaren arduradunekin baloratu egin behar dugu Gazteen alorrarekin zer egingo dugun.

## SARRERA

Gaian kokatzen laguntzeko, batzarretarako deien arrazoiak azaltzeko, zer eta zelan egin nahi dugun lan azaltzeko... hainbat azalpen eman dugu: batzarretara deitu izanaren arrazoa, lan egiteko moduak, EBPn zer den...

## EUSKARAREN EGOERA -diagnostikoa-

Leioako euskararen inguruko zenbait datu aurkeztu dira herriko euskararen egoeraren argazkia jasotzeko:

### (Ikus Aurkezpena)

Batzarrean parte hartu duen batek komentatu du datuekin batera datuen bilakaera azaldu beharko litzatekeela, datuak bestela hutsak direla. Aurreko plangintzaldiko EBPnren planaren balorazioa egin beharko litzatekeela, ez datu batzuen.

Leioako Udaleko euskara-teknikariak erantzun dio Plan osoaren diagnostikoa egitea ez dela posible eta horko zenbait datu esanguratsu atera ditugula horien gainean jarduteko.

## TALDEKAKO LANKETA

2 taldetan alorrez-alorreko INDARGUNEAK eta AHULGUNEAK identifikatu ditugu:

FAMILIA, TRANSMISIOA, EUSKALDUNTZEA, HEZKUNTZA ETA ETORKINAK		
	INDARGUNEAK	AHULGUNEAK
<b>EUSKARAREN TRANSMISIOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Familia euskaldunetan bermatuta dago transmisioa.</li> <li>-Euskaldunek euskarari dioten atxikimendua bermea da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Kalean balio duen hizkuntza gaztelania da.</li> <li>-Kalea "irabaztea" da erronka.</li> <li>-Korrontearen kontrako gudan gabiltza euskaldunok.</li> <li>-Herrian eskoletatik kanpo oso aukera gutxi dago euskaraz jarduteko.</li> <li>-"Euskaraz egin behar duzu!". "Behar"en zama.</li> <li>-Ikastaro edo ekintza bera euskaraz eta gaztelaniaz hautatzeko aukera dagoenean gaztelaniazkoa nahiago izaten dela adierazi du batek. Eztabaida sortu da. Iritzi guztiak ez dira bat etorri.</li> <li>-Umeez ez dute euskara mundu modernoarekin identifikatzen.</li> </ul>
<b>ERABILERA FAMILIAN</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Haurrak eskolara euskara badakitela joaten dira.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Nerabezaroan gaztelaniak indarra hartzen du. Euskaraz egiten dieten gurasoei gaztelaniaz erantzuten diete nerabeek.</li> <li>-Aitak edo amak, batek, euskaraz ez jakiteak eragin handia du familiak erabiliko duen hizkuntzan.</li> </ul>



FAMILIA, TRANSMISIOA, EUSKALDUNTZEA, HEZKUNTZA ETA ETORKINAK		
	INDARGUNEAK	AHULGUNEAK
<b>HEZKUNTZA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Eskola euskara bultzatzeko eremu bikaina da, harreman mota asko ematen da bertan: korridoreetan, gelan, jantokian, jolastokian...</li> <li>-D eredua askok eta askok inertziaz hautatzen dute.</li> <li>-Irakasleak, gizartea ez bezala, euskaldundu egin dira.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Kosta egiten da ikasleekin euskaraz egitea.</li> <li>-Euskara hizkuntza akademikoa da, hori baino ez.</li> <li>-Hezkuntza arautuak euskara salbatuko duen uste faltsua dago txertatuta gizartean.</li> </ul>
<b>EUSKALDUNTZEA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Euskarak gizartean alde dituen korrontek aprobetxatu behar dira aurrera egiteko.</li> <li>-Badakigu "egizu euskaraz!" diskurtsoak ez duela ezertarako balio.</li> <li>-Badakigu ezagutzak ez duela erabilera bermatzen.</li> <li>-Euskara nahi duenak eskura du, lehen ez bezala. Ez da borroka egin behar euskara izateko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Euskara ikastea oso zaila da.</li> <li>-Euskararen aldeko kontuetan beti pertsona berak gabiltza.</li> <li>-Euskaraz komunikatzeko gaitasuna gaztelaniaz komunikatzekoaren azpitik dago (DBHko 2. mailan egiten den probaren emaitza).</li> <li>-Bizkaiko hainbat herritako kale-erabilerako datuak txarrak izan dira, kezkarriak.</li> <li>-Begirada aldatu egin behar dugu. Espektatibak eta kontzientzia neurtu egin behar ditugu.</li> <li>-Ezagutza neurtzen dugu. Ez, ordea, euskaldun kontzientea izatea; euskaldun proaktiboa izatea.</li> <li>-Administrazioen zereginek bateratuagoa eta indartsuagoa izan beharko lukete.</li> <li>-Ez dakitenek ez diote inongo baliorik aitortzen euskarari.</li> <li>-Herriko sektore handi bat euskaratik kanpo bizi da.</li> <li>-Lehen errazagoa zen euskaraz egitea, onartuago zegoen.</li> <li>-Lehen euskara ikasteko gogoia zegoen, ilusioa.</li> </ul>



FAMILIA, TRANSMISIOA, EUSKALDUNTZEA, HEZKUNTZA ETA ETORKINAK		
	INDARGUNEAK	AHULGUNEAK
<b>ETORKINAK EUSKARA</b>	<b>ETA</b> -Atzerritarrek gogo handia daukate seme-alabek euskara ikas dezaten. -Badakigu eskola-eremuaz gain, bizitza sozialak berebiziko eragina duela hizkuntza bat norbereganatzeko unean. Neska txinatar batek arazoak ditu gaztelaniaz ikasteko (eskolatik kanpoko eta txinatarren komunitatetik haragoko bizitza sozialik ez du egiten). Mutil txinatar batek euskaraz bikain egiten du (eskolaz kanpoko hainbat ekintzatan hartzen du parte).	



<b>AISIA, KULTURA, KIROLA, LAN-MUNDUA eta MERKATARITZA</b>		
	<b>INDARGUNEAK</b>	<b>AHULGUNEAK</b>
<b>AISIA</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>-Aisialdiko eskaintzen komunikazioa hizkuntza bietan egiten da.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>-Aisialdi-elkarte batzuetan (gazteenetan) gaztelaniaz diren kanpalekuak antolatzen dira.</li><li>-Haur eta gazteek eskolan egiten dute euskaraz; eskolatik kanpo, ez.</li><li>-Udalak IVAPeko 2. HE eskatzen die begiraleei. Maila baxuegia da.</li></ul>
<b>KULTURA</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>-Jai-batzordeetan euskararen presentzia handiagoa dago Udalean baino.</li><li>-Elkarteek antolatutako ekitaldiak ia beti euskaraz izaten dira.</li><li>-Haur eta gazte gehienak euskaldunak dira.</li><li>-Leioak biztanle gazte asko ditu.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>-Udalak gehiegi zentralizatzen du kultura Kultur Leioan.</li><li>-Erdarazko ekimenetan euskarak ez du inolako presentziarik izaten.</li><li>-Euskaraz izan behar zuten hainbat antzerki-emanaldi bertan behera gelditu izan dira ikusle faltagatik.</li><li>-Hiri-egiturak ez du euskarazko kultura-ekitaldiak antolatzeko laguntzen.</li><li>-Erdaldunek ez dute euskarazko eskaintzarik izaten.</li></ul>



AISIA, KULTURA, KIROLA, LAN-MUNDUA eta MERKATARITZA		
	INDARGUNEAK	AHULGUNEAK
<b>KIROLA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Gehiena euskaraz egiten da: ekimenak, udako kanpusak...</li> <li>-Komunikazioak euskaraz izan daitezen saiatu egiten dira elkarteetako arduradunak.</li> <li>-Kiroletan euskaraz egitea errazagoa da beste esparru batzuetan baino.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Elkarteek zailtasunak izaten dituzte itzulpenak egiteko: gazt. &gt; eusk.</li> <li>-Igerilekuetan ez da euskararik egiten.</li> <li>-Ez dakigu zelan kudeatu behar den kiroldegiko eskaintza euskararen alorrean.</li> <li>-Euskara presente izatea edo ez, begiralearen esku egoten da.</li> <li>-Elkarteek antolatzen dituzten ekimenetan elkarten esku izaten da euskara izatea.</li> <li>-Euskarazko taldeak etsi behar izaten du beti, gaztelaniazkoaren mesedetan.</li> </ul>
<b>MERKATARIAK</b> <b>LAN-MUNDUA</b>	/ -Konfiantzazko harremana.	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Euskaldunak ez daude identifikatuta.</li> <li>-Merkataritza- eta lan-mundua nagusiki ez dira euskaldunak.</li> </ul>



ELHUYAR  
euskal herriko unibertsitatea

### Leioako planoaren gainean:

Leioako planoaren gainean guneak identifikatu eta bereizi egin nahi izan ditugu. Kolore berdearekin euskaraz egiten dela adierazi nahi izan dugu, gorriarekin gaztelaniaz egiten dela eta urdinarekin beste hizkuntza batzuk direla nagusi. Horrez gain, tamainaren bidez ere, kantitatea islatu nahi izan dugu, tamaina handiagoari kantitate handiagoa dagokio.



euskara



gaztelania




beste  
batean




asko



gutxi







## BALORAZIOA

Amaitzeko, hitz batekin baloratu dugu saioa:

- ✘ eskerrik asko
- ✘ topagune
- ✘ positividad
- ✘ gogoa, ganas
- ✘ eztabaida
- ✘ labur (zentzu positiboan dela adierazi du)
- ✘ gustura
- ✘ interesgarria
- ✘ beharrezkoa